



errigora.eus

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta
euskarari puzka

Herriak egiten du herria

aek



Herriak egiten du herria

Errigoraren ibilbide laburra herrigintza ariketa ederra izan da; herriak herriari eginiko ekarpen xume bezain inspiratzailea. 2013tik 1.400.000 euro baino gehiago bideratu ditugu Nafarroa hegoaldean eta erdialdean euskaldunak sortzeko herritik jaiotako egitasmoak sustengatzera. Eta, aldi berean, diru-ekarpen hori sortzeko bidea elikadura-burujabetzara pausuak emateko baliatu dugu.

Bide horretan, herrilana izan dugu lanabes. Txikitik handira apustu eginez eta inori konturik eskatu gabe, nor bere ahal eta gogoaren arabera egindako ekarpen askotarikoak batzeko gai izan gara eta, herritarrek kontsumitzaile edo erabiltzaile huts bihurtu diren garaioan, auzolanaren balioa eta baliagarritasuna frogatu dugu.

Agerraldiaren sorrera norabide berean emandako pausu berria da. Izan ere, denbora gehiegi joan zaigu Nafarroa hegoaldean eta erdialdean aldaketaren zain, egun seinalatu batean euskararen arazoak zerutik eroritako soluzio magiko batek konponduko balitu bezala. Herritarrek ekarri ezean, aldaketarik ez dela helduko sinetsita sortu dugu, hain zuzen, Agerraldia. Bere garaian erromatarrek *ager vasconum* izendatu zuten eremua berreuskaldundu nahi duten herritar guztiak saretu eta mugimendu ekintzaile bat sortzeko. Izan ere, bokazio praktikoa du Agerraldiak: egiteko eta eginarazteko sortu da; instituzioen utzikeriaren edo, are, eragozpenen aurrean, herri-ekimena nagusitu dadin, euskararentzat aro berri bat zabaltzeko.

Eskaintza

Hiru saski

Azken urteetan egin dugun bezala, hiru saski izango ditugu kanpaina honetan: saski beltza (55€), Errigoraren saski klasikoa, saski berdea (65€), ekologikoa, eta saski zuria (75€),



Saski beltza 55€

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila ardoa · Melokotoia almibarrean · Melokotoi marmelada · Tomate frijitua · Potxak · Teilak · Kardua · Mahats-zukua · Piper-mamia

+ 2022ko egutegia



Saski berdea 65€

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila ardoa · Ardo-ozpina · Dillista lehorrak · Barazki-menestra · Arroza · Pasta · Sagar-zukua · Teilak

+ 2022ko egutegia



Saski zuria 75€

Orburuak · Zainzuri zuriak · Pikillo piperrak · Oliba-olio birjina estra · Botila kiantza · Ardo zuri apartsua · Patxarana · Pikillo marmelada · Txokolatzeko zigarretak · Patxaran-pastak · Polboroiak

+ 2022ko egutegia

berezia. Aurten, gainera, saski bakoitzean egutegi txukun bat sartuko dugu, Errigoraren eta Agerraldiaren argazkiak eta informazioak jasoko dituen.

Saskien diseinua ere berritu dugu aurtengoan, marka-irudi berriarekin bat egiteko eta, bide batez, tintaren erabilera murriztuz, iraunkortasunaren bidean pausu berri bat emateko.

Prezio igoera

Urteak joan ahala, gero eta zailagoa egin zaigu prezio berean lehen urtekoaren gisako saskia mantentzea, barruko produktuen salneurriak gora egin baitu zortzi urteotan. Hala, urte egokia iruditu zaigu bost euroko igoera txiki bat aplikatu eta datozen urteetarako marjina izateko.

Edozein kasutan, kanpora begira **ez diogu saskien prezio igoerari garrantzia handirik emango**, baina, hala egin behar dugunean edo galdetzen digutenean, ondorengo bi indarguneetara bideratuko dugu arreta:

- Saskien prezioa igota, **euskalgintzari diru-ekarpen handiagoa egingo diogu** (%25 hori potolotuko baitugu).
- Igoera txiki horri esker saskien kalitatea hobetu da, produktu gehiago sartu ahal izan dugu eta **egutegi bat gehitzeko aukera** eman digu.

25 ekoizle

Nafarroa hegoaldeko 25 ekoizle dira kanpaina honetan parte hartzen dutenak: Ablitasgo kooperatiba, El Alcaraván (Argedas), Almanaque (Andosilla), El Agricultor (Lerin), Aristu (Irunberri), Azanza (Abartzuza), Azpea (Irunberri), Biosasun (Discastillo), La casa del aceite (Cascante), Bardea (San Isidro del Pinar), La Churta (Allo), Ebrón (San Adrian), Enara (Arroitz), El Escolar (San Adrian), Gobeiaberri (Lodosa), Hazialdeko (hainbat herri), Iturri (Arroitz), Larrinaga (Urantzia), Lezaun (Lakar), Martinelli (Berriain), Mendiko (Oibar), El Molinero (Arroitz), Monasterio de Cascante, Pedro Luis (Lodosa) eta Urrutia (Uxue).

Diru-ekarpena

Diru gehiago

Aurretik aipatu bezala, aurtengoan saski bakoitzeko diru gehiago bideratuko dugu Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara. Izan ere, beti bezala, saskien balioaren

%25 joango da diru-ekarpen hori osatzera eta, saskien balioa 5 euro igota, **ekarpenaren zatia ere handiagoa izango da.**

AEK, ikastolak eta Sortzen

Kanpaina hau Ikastolen Elkartearekin, AEKrekin eta Sortzenekin elkarlanean egiten du Errigorak eta kanpainak uzten duen **diru-ekarpenaren zati handiena Nafarroa hegoaldeko ikastolei, AEK-ren euskaltegiei eta zonaldean sare publikoan D eredia indartzeko Sortzenen dinamikei bideratzen zaie.**

Agerraldia

Horrez gain, ekarpenaren beste zati bat Errigorarengandik jaiotako Agerraldia ekimenari bideratuko zaio. **Nafarroa erdialde eta hegoalde zabalean euskarari hauspo berria ematera datorren mugimendua** da. Euskararen aldeko askotariko herritarrak saretu eta, proiektu komun baten baitan bilduta, euskararen ezagutza bultzatzeko, erabilera sustatzeko eta euskararekiko jarrera baikorrak birsortzeko ekintza praktikoak bultzatzea du xede. Ekintza praktiko horiekin urteko agenda osatzen du Agerraldiak. Dagoeneko bete du bere lehen agenda-urtea eta, pandemiak ezarritako oztopoei aurre eginez, ekintza asko aurrera ateratzea lortu dugu, zonaldeko euskaltzaleen artean ilusio handia piztuz.

Besteak beste, Agerraldiaren agendak Union Tuterako kirol taldearen sorrera jaso du. Euskaltzaleetasuna eta bestelako balioak hedatu nahi ditu kirolaren bidez



Eskaerak

Online: errigora.eus

Gure webguneak eskaintzen du eskaerak jasotzeko bide eraginkorra eta sinpleena. Beraz, **lehentasunez bide hau sustatzen saiatuko gara:**

- **Akatsak saihesteko:** kontsumitzaileak zuzenean egingo baitu eskaera eta, tartean informazioa galtzeko zein gaizki jasotzeko edo pasatzeko arriskua murriztuko baitugu.
- **Ordainketak errazteko:** online eskaera egiten duenak unean bertan zein aurrerago txartel bidez ordaintzeko aukera izango du. Horrek, eskatzaileari ez ezeik, sarekideoi eta, oro har, Errigorari ere egiten dio onura. Izan ere, batetik, banaketan diru gutxiagorekin ibili behar izango dugu; bestetik, likidezia emango digu ekoizleei lehenago ordaintzeko eta euskalgintzari diru-ekarpena arinago bideratzeko.
- **Datu-basea elikatzeko:** webgunearen bidez eskaera egitean kontsumitzailearen datuak gordetzen ditugu banaketaren informazioa helarazteko eta, espreski baimenduz gero, aurrerago interesekoa izan dakiokkeen informazioa bideratzeko. Era horretan, hurrengo kanpainetan aurrez aurreko harremanaz gain, telematikoki ere eman diezaiokegu kanpainen berri, botoi bat sakatuta.

Eskuorria

Badakigu hainbatek zailtasunak izan ditzakeela internet bidez eskaerak egiteko edo nahiago izan dezakeela ohiko bideak erabiltzea eta, beraz, **kanpainako eskuorriak dakarren inprimakia betez** ere egin daitezke eskaerak.

Inprimaki hauek jasotakoan **komenigarriena datuak plataforman erregistratzea da**. Modu horretan (beti ere eskatzailearen emaila baldin badugu) online eskatzeak ematen dizkigun hainbat abantaila izango baitugu: besteak beste, txartel bidez ordaintzeko aukera emango zaio kontsumitzaileari eta datu-basean bere kontaktua jasota geratuko da.

Telefonia

Aurreko kanpainan telefono bidez eskaerak egiteko bidea zabaldu genuen, neurri handi batean COVIDaren kudeaketak sortutako egoera bereziak eta stockaren arazoak behartuta. Oraingoan ere telefonoaren aukera mantentzea erabaki dugu, jakin baitakigu zenbait lagunek nahiago dutela bide hau eskaerak egiteko edo informazioa jasotzeko.

Hegoaldetik deitzeko +34 848 87 12 23 zenbakia daukagu; iparraldetik, ostera, +33 532 09 35 45 zenbakira deitu daiteke. Edonola ere, **ez dugu sustatuko telefonoaren erabilera**, kudeatzeko zailtasun handiagoak ditu eta.

Egutegia

URRIA						
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31
AZAROA						
1	2 eskaerak erregistratu	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12 datuak sartu	13	14
15 behin betiko datuak	16 online ordain- tzeko epea	17 Araba + Nafarroa	18 Ipar EH + Nafarroa	19 Araba + Nafarroa	20	21
22 Gipuzkoa	23 Gipuzkoa	24 Gipuzkoa	25 Gipuzkoa	26 Ipar EH + Bizkaia	27 Bizkaia	28
ABENDUA						
29 Bizkaia	30 Bizkaia	1	2	3	4	5
6	7	8	9	10 ordaintzeko epea	11	12

- Eskaerak egiteko epea: urriak 23 – azaroak 11.
 - ↳ Azaroak 2: eskuorri edo beste bideetatik jasotakoak plataforman erregistratu, banakako eskaera gisa.

- Datuak sartu: azaroak 12 (banakako eskaera gisa erregistratzea da komenigarriena).
- Baieztapenak: azaroaren 15era bitartean.
- Online ordainketa egiteko azken eguna (eskaera egiterakoan ordaindu ez dutenentzat): azaroak 16
- Deskargak:
 - ↳ Araba: Azaroak 17 eta 19
 - ↳ Ipar EH: Azaroak 18 (barnekaldea) eta 26 (kostaldea)
 - ↳ Gipuzkoa: Azaroak 22-25
 - ↳ Nafarroa: Azaroak 17-19
 - ↳ Bizkaia: Azaroak 26-30
- Ordainketak: abenduaren 10era arte
 - ↳ Plataforman izango da ingresoak egiteko informazioa
 - ↳ Oso garrantzitsua da kontzeptua errespetatzea

Ekimenak

Azken urte eta erdian izan ditugun neurri murriztaileak atzean geratzen ari direla dirudien honetan, apustu berezia egin dugu ekimenen bidez jendea bildu eta, berriz ere herrilana irudikatzeaz gain, Agerraldia zer den ikustarazteko. Besteak beste,

- Kanpaina abiatzeko, urriaren 23an kuxak osatzeko **auzolan-egun potentea** antolatuko dugu, iazko hutsunearen ostean:
 - ↳ Goizean kuxak osatuko ditugu Ablitasen, Euskal Herriko txoko guztietako jendea bilduz.
 - ↳ Arratsaldean, Agerraldiak antolatuta, kontzertua izango da Tuterako zezen plazan. Gaur-gaurkoz 2.500 lagun batzeko aukera dugu eta *online* salmentarako gordetako sarrera guztiak agortu dira; ikusiko dugu neurriak lasaitzen diren datozen asteetan.
- Kanpaina erdian Agerraldiaren ekimenez antolaturiko **ludoteken ikasturte berria aurkeztuko dugu**. Aurtengoan 18 herritan eskainiko direla eta, haurrak bildu eta jai giroan ikasturte hasiera ospatzea da asmoa, Ene Kantak-en laguntzarekin.
- **Ikastolak eta AEK ere ekimen bana** antolatzen ari dira, haien komunitateetan eragin asmoz:
 - ↳ AEK-k Gipuzkoako eta Erriberako ikasleen arteko topaketa egin asmo du, Errigorako ekoizle baten etxean.
 - ↳ Oarsoaldeko ikastoletan, aldiz, langile eta gurasoak batu nahi dituzte, lehen

eskutik Lodosako eta Tuterako ikastolen bizipenak ezagut ditzaten.

- Kanpaina bukatu eta hurrengo astean ekitaldi berezi bat egingo dugu, emaitzen berri emateaz gain, **herritarrei egindako ekarpena eskertu eta Agerraldiaren 2022ko agenda aurkezteko.**

Ekitaldi horiei guztiei herriz herri eta auzoz auzo egingo diren tokiko dastaketa, hitzaldi eta bestelako ekimenak gehituko zaizkie. Herrietan egiten dena ikustarazteko eta kanpainari hasupoa emateko **garrantzia bizikoa da irudiak —argazkiak eta bideoak— jasotzea** eta nork bere kontaktuari helaraztea.

Bukatzeko, kanpaina bezperetan kaleratu den inizatiba berezia gogoratuko dugu: **Agerraldiaren kantua ondu du Ibil Bedi musika taldeak**. Bideoklipa Youtubeko Agerraldiaren kanalean dago ikusgai, eta zuen ingurukoen artean zabaltzera gonbidatzen zaituztegu.